

Kultura

Ndiaya Gueye 'Njaaya' musikari senegaldarra gonbidatu dute Plateruenera, bihar > 11



Durangaldean dira urritasunak dituzten zortzi ume saharai

Eskualdean uztaila eta abuztua pasatzera etorri dira Rio de Oro-Durango ekimenaren bitartez. Zailtasunen gaintik, umeak dira eta oporretan gozatzeko gogoia dute. Batzuentzako, Tindufetik (Aljeria) irteten diren lehenengo aldia da > 3



Garraiolariak gasolina lapurretak salatu dituzte Elorrion > 4

Elorrioko hainbat garraiolariak euren kamioietako gasoila osten dietela salatu dute. Lapurretak duela urte bi hasi zirela azaldu dute, baina azkenengo urtean nabarmen egin dutela gora. Udalaren jarrera gogor kritikatu dute kamioilariek: "Berba onak esan dizkigute, baina ez dute ezer egin". Udaletik, berriz, Joseba Mujika alkateordeak dio arazoa-ri jarraipena egiten dabiltzala, eta kamioia Eroskiko aparkalekuan uzteko planteamen-dua egin dietela garraiolariari.



M. Aretxaga
HAGIN KLINIKA

Maite Aretxaga

Muruetatorre, 9behea
48200 DURANGO

haginklinika@yahoo.es
94 646 24 98

ekainaren 1etik uztailaren 30era
BONO hau eramatearren...

%15eko

DESKONTUA*
egindako diagnostietan

* ortodontzietan izan ezik

Elorrio > 2

Zabartek eta Lopezek "kalean behar luketela" salatu dute

Durangaldea > 4

Iketz eta San Eloyren inguruan, sindikatuen arteko ika-mika

Durango > 6

TAO zerbitzuaren kontrola handitzeko adjudikazio berria

Zaldibar > 7

LOMCE hezkuntza erreforma gaitzetsi du udalak

Herririk herri

> ELORRIO

Zabartek eta Lopezek “kalean behar luketela” salatu dute

Herritarron Epaia ekimena Elorriora heldu zen martitzenean



Guztira, 180 bat herritar batu ziren Elorrioko Herriko Plazan, martitzenezko ekitaldian.

> JOSEBA DERTEANO

Herritarron Epaia izeneko ekimena Elorriora heldu zen martitzenean. Felix Zabarteren (28 urte daroaz kartzelan, eta 2008tik kalean egon behar luke) eta Anton Lopezek (26 urte kartzelan, eta 197/2006 doktrina aplikatu diote) egoera salatu ondoren, Anton Lopezek idatzitako gutuna irakurri zuten. Zabarteren koardilakoek ere gutun bat irakurri zuten.

Lopezek, bere gutunaren bidez, “errespetua” eskatu zuten irekitzen ari den aldi berrirako. Era berean, “espetxe politika berria ahalbidetuko lukeen mekanismo egokiak aktibatuko” deia egin zien horretarako “ahalmen politikoa edo juridikoa” dutenei. Dispersioaren amaiera, gaixo dauden presoak kaleratzea eta 197/2006 doktrinaren amaiera eskatu zituen. Era berean, Aieteko protokoloaren harira, presoak gaur egungo eszenatoki politiko berriari “erantzukizunez lotu-

ta” sentitzen direla azaldu zuen: “Gure tokitik kultura politiko berri bat finkatzen lagundu gura dugu. Bide horretan, garrantzitsua da urratsak egitea”.

197/2006 doktrinaren aurka Ondoren eskainitako prentsaurrekoan gogorarazi zuten Estraburgoko Giza Eskubideen epaitegi gorenari 197/2006 doktrinaren kontra agertu izan dela. Oostean, Espainiako estatuak helegitea ipini zuen, eta orain, erantzunaren zain daude, “baina ez gaude prest itzaroteko, eta doktrina bertan behera uzteko exijitzen dugu”, adierazi zuten. Bizitza osoko espetxe zigorraren aurka agertu, larri dauden presoak aske uzteko eskatu eta sakabana-keta salatu zuten.

Azkenik, Herritarron Epaia ekimenaren barruan herririk herri daroaten koaderno erraldoian sinatzeko eta mezu bat uzteko aukera izan zuten ekimenean batu ziren 180 bat lagunek.

Lapurreten aurrean garraiolariak patruilak egiteari ekin diote

Gauetan gasolioa lapurtzen dietela-eta, patruilak antolatu dituztela azaldu dute kamioi gidariek



Kamioiak, Elorrioko sarreran aparkatuta.

> JONE GUENETXEA

Goizean kamioia hartzera doazen hainbat garraiolariaren berbatan, sarreran sorpresa desatseginagaz topo egiten dute Elorrioren. Lapurrek gasolina hartzen dietenez, ibilgailua isiotu ere ezin izaten dute egin. Lapurretak iaz hasi zirela diote, baina aurrean nabarmen hazi dela kopurua: “Gau batean, 700 litro ostu zizkiguten hiru kamioitan”. Duela urtebete, Elorrioko Udalak eta Ertzaintzak hitzarmena sinatu zuten gauetan erantzainek herrian patruilatzeke: “Orain Elorrio seguruagoa dela esan ziguten, baina lapurrentzako abisu bat beharrean, kontrako efektua egin zuen, eta erantzainek deia izan zela dirudi”.

Azaldu dutenez, 10-15 salaketa jarri dituzte dagoeneko. “Udaltik berba onak entzun ditugu, baina ez dugu ekintzarik ikusi”. Egoera honen aurrean, gauetan patruilak jarri dituzte martxan.

Udalaren alternatiba

Joseba Mujika alkateordeak dioenez, “arazoa aztertu dugu, eta salaketa pare bat baino ez daudela ipinita ikusi dugu. Lapurreta gehienak Betsaide industrialdearen inguruan gertatzen direnez, alternatiba bat eman diegu. Eroskiko aparkalekuan aparkatzea”. Mujikak dioenez, ez da onargarria esatea udalak ez duela ezer egin, astero Ertzaintzagaz egoeraren jarraipena egiten baitute.

Udan herrian geratzeko eskaintza “zabala, anitza eta interesgarria”

Bisita gidatuetan Tola jauregiko lorategia zabalduko dute interesdunentzat

> MARKEL ONAINDIA

“Eskaintza zabala, anitza eta interesgarria”. Berba horiek erabili ditu Ana Otadui alkateak aurtengo udan Elorrioren egongo den programazio kulturala deskribatzeko. Tola jauregia izan da aurkezpen gune, eta aurrean protagonismo berezia edukiko du leku horrek. Izan ere, bisita gidatuetan bertako lorategia zabalduko dute interesdunentzat. Horretaz gainera, urtero legez,

Musikaireko kontzertu batzuk ere bertan eskainiko dituzte. Herria ezagutzeko aukeretan, Argiñeta ere bada interesgune. Indusketak martxan egonda, lurra altxatuta dagoela, eremu arkeologikoa ikusi eta haren inguruan gehiago jakiteko aukera emango dute.

Elorrioko Udak izenpean, Interneten eskuragarri dago egitarau osoa, www.elorrio.net atarian.

Azkenengo azoka, bihar

Elorrioren hainbat azoka egin izan dituzte azkenaldian. Antzina ogibideena eta kulturala pasata, Elorrioren eratuak Durangaldeko Azoka Ekologikoa egingo dute bihar. Hamazortzi ekoizle bizkaitarrek parte hartuko dute; erdiak Durangaldekoak izango dira. Ortuari, gazta eta ohiko produktuez aparte, aurtengo nobedadea haragi ekologikoa izango da.

> M.O.

Atzo ospatu zuten Berriotxoaren eguna. Urteroko jaia izan ohi da, baina atzokoa berezia izan zen. Izan ere, aurrean 25 urte bete dira elorriarra santu izendatu zutenetik. 1988ko ekainaren 19an erabaki zuen Juan Pablo II.ak Balentin Berriotxoaren kanonizatzea.

12:30ean ospatu zen mezarako kalejira egin zuten agintariak, eta Iñigo Urkullu lehendakaria egon zen prozesioaren buruan, Ana Otadui alkateagaz batera. Meza ostean, lunchean batu ziren herritarrak. Arratsaldean pilota partiduak jokatu ziren, eta Kriskitin dantza taldeak ikuskizuna eskaini zuen. Gero, Berrio-Otxoa abesbatzaren eta Lezamako orfeoien kontzertuagaz amaitu zen egitaraua.

25 urte Berriotxoaren santuaren eguna ospatzen

Aurrean, 25 urte bete dira Balentin Berriotxoaren santu izendatu zutenetik; atzo ospatu zuten



Agintarien kalejira, Urkullu eta Otadui buru direla.

> DURANGALDEA

Rio de Oro: saharaienganako elkartasun keinu berri bat

Urritasunak dauzkaten zortzi ume saharauik Durangaldean igaroko dute uda



Ume saharauiak eta begiraleak, Izurtzako aterpetxean.

> MARKEL ONAINDIA

Saharaienganako elkartasun ekimen berri bat jaio da Durangaldean. Urritasunak dauzkaten umeak ekarri dituzte lehenengoz uda pasatzera, Rio de Oro-Durango ekimenaren bidez. Zortzi dira; gorreria, itsutasuna, autismoa, buruko paralisia, Downen sindromea eta ezgaitasun intelektuala dauzkate. Caritasen Izurtzako aterpetxean daude 24 orduz, hainbat begiralek zainduta. Aterpetxean berdegune bat daukate

denborapasarako: txin-txaunetan ibili, futbolean jolastu... Euria egiten duenerako pare bat jaima ipini dituzte. Inguru ezagutzen ibili dira, eta irteerak prestatu dituzte; Senda Vivara joango dira Geu Be elkartekoekin, adibidez.

Ez dira hemen dauden saharai bakarrak. Aurten ere hainbat ume etorri dira, oporrak Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamentuetatik kanpora pasatzeko asmoz. Beroa saihestu eta bizi baldintza hobekatu eduki gura

dituzte; esaterako, elikadura egokia jasotzea eta osasun azterketak egitea. Joan zen astean jaso zituzten familiek, eta Durango eta Elorrioko udalek harrera ofizialak egin dizkiete. Durangoko Herria eta Elorrioko Lajwad elkarteek sustatzen dute umeok etxean hartzeko kanpaina.

Bestalde, mugimendu berak Saharai Eguna eratu du bihar. Tailerrak, bazkaria, ekitaldia eta kontzertuak egingo dituzte Durangoko Andra Marian.

2012ko urrian ekimena eratzen hasi zen Maider Caballero, Mikel del Arco eta Claudia Odriozolagaz batera. Espainiar estatu osoko 50 bolondres batu dituzte hil biotan lan egiteko. Zortzi umeekin, itsutasuna daukan begirale bat etorri da: El Mami Sidi Brahim.



Zelan hasi da esperientzia?

M.C.: Emozio asko bizi izan dugu. Hasieran, ez genekien noraino heldu zitekeen bakoitzaren ezgaitasuna. Nik uste nuen gaitzagoa izango zela, baina hasi eta astebeterra, ondo ezagutzen ditugu. Zer gustatzen zaien, zer egin dezaketen... Azkenean, 24 ordu gaude batera, eta denbora gehiago pasatu dela dirudi. Oso gustura gaude. Denbora asko iraun duen lan bat egin eta gero, eurak pozik daudela eta pertsonalki aurrerapausoak egiten dabiltzala ikustea oso esanguratsua da.

Zelan daude umeak?

E.M.S.B.: Oso pozik ikusten ditut. Ilusio bat da, ideia itzela. Lan honetan parte hartu duten guztiak eskertu gura ditut: bolondresak, Durangoko Udala, Herria...

Zer onura jasoko dute?

E.M.S.B.: Medikuekin egoten dira, eta gainera, hilabete bi pasatzen dituzte berotik urrun. 50 gradukoa, ezin duzu imajinatu. Ondo daudenek txarto pasatzen dute, bada, pentsatu zailtasunak dauzkaten hauek.

Saharaiiekiko elkartasuna indartsua da Euskal Herrian.

E.M.S.B.: Elkartasuna handitzen dabil uneoro. Asko eskertzen diogu Euskal Herriari. Aurten 316 ume pasako dituzte oporrak bakean. Ume bakoitza bake enbaxadore bat da, eta politikoei egiten ez dutena egin ahal dute: familiak ezagutu, beste ume batzuekin jolastu... Herri saharaiarekiko elkartasuna handitzen da.

Lanerako



Gertu!

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Oñati gestio heziketa

Matrikula

uztailak 8tik 12ra

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2013-2014

Eskaintza akademikoa

MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgep@mondragon.edu
 943 71 21 91

Oñati Gestio Heziketa

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa
- Nazioarteko Merkataritza

www.mondragon.edu/ogh
info.enpresagintza@mondragon.edu
 943 71 80 09



> DURANGALDEA

Iketz eta San Eloy enpresen auzia: sindikatuen ikuspuntu kontrajarriak

Hainbat ekintza leporatu dizkiote elkarri LAB eta ESK-k eta ELAk



Maite Arginzonizek eta Iñigo Ariznabarretak egin zuten berba prentsurrekoan.

> M. ONANDIA/J. GUENEXEA
LABeko eta ESK-ko 50 afiliatu batu ziren astelehenean, Eloorrioko plazan emandako prentsurrekoan, Iketz (Abadiño) eta San Eloy (Elorrio) enpresetan gertatutakoaren inguruan duten iritzia emateko. Likidazio prozesuan daude eta inbertsore berri batekin akordioak sinatu dituzte enpresa bietan. Adierazi zuten talde bereko enpresa bietan proposamen bera egin zutela, eta hasieran plantilla biek onartu arren, gero desberdina izan direla negoziazioa eta emaitza. "Iketzen benetako negoziazioa egin zen". Tarte horretan greba deitu zutela, eta horri esker, gutxieneko

lan baldintzekin akordioa sinatu zela uste dute. San Eloy, euren ustez, ez da benetako negoziario egin: "ELAko eta CCOOko delegatuek bultzatuta, beldurraren diskurtsoa zabaldu da. Inbertsorearekin ezin zela negoziatu, beste alde egingo zuela-eta". Iketzen greba deialdia egin zenean, San Eloyko langile batzuek horren kontra egin zutela ohartarazi dute: "Dei eta mezu anonimoak egin ziren, tartean mehatxuak eta irainak". Prentsurrekoan, kritika gogorra egin zuten: "LABeko eta ESK-ko delegatuak langabezian geratu dira, baina, ELA eta CCOOkoek, oster, inbertsorearekin lanean jarraituko dute".

ELAren erantzuna

Asteleheneko prentsurrekoan LABek eta ESK-k plazaratutako adierazpenei prentsa ohar bidez erantzun die ELAk. LABek Iketzen bere planteamenduak inposatu dituela kritikatu du ELAk "mehatxatza helduz eta beraien iritzien kontra dauden langileak baztertuz". Gaineratu duenez, "LABek 220 behargini lana emango zien lehenengo inbertsorearen proiektua huts egi tera eroan eta gero, informazioa ezkatuta, San Eloyko langileek aho batez asanbladan erabakiak hartzea onartu zuten".

Langileen interesak asanbladan hartutako erabakiak errespetatuta defendatu dituztela diote ELAkoek: "San Eloy 90 langilek baino gehiagok babestu dute inbertsorearekin akordioa, tartean LAB eta ESK-ko afiliatuak". Audi enpresagaz sinatutako akordioari esker, lan taldea laster handituko dela azaldu dute. Enpresa berria abuztuaren erdialdean hasiko da martxan. "Akusazio faltsuak" egiteari uzteko eskatu diote LABi, "Iketzeko afiliatuak kolokatzeko izandako negoziazioak eta hutsik geratu den pabilioi bat antza denez Iketzeko LABeko delegatu bati adjudikatzearen helburua argitu beharko litzuzke".

> ATXONDO

Kooperatiba bidezko bizileku proiektuari berriz ekin diote

Irailean zerrenda osatu gura dute interesdunekin

> JOSEBA DERTEANO

Arraindegia dagoen eraikinaren atzeko landan, kooperatiba ereduaren bidez zortzi etxebizitza eraiki eta kudeatzeko asmoa abiatu zuen iaz udalak. Proiektua egingo dago, eta berau ezagutara eman eta herritarren interesa jakiteko batzarra deitu zuten. Harrezkero, kooperatibaren eredu hainbat aditu, elkarte eta abokaturekin batu dira sistema horren gaineko jakintza aregotzeko.

Orain, berriro ekin diote asmoari. Martitzenean herri batzarra deitu zuten, orain urtebete emandako azalpenak errepikatu eta herritarren interesa zein den ikusteko. Hainbat herritar batu ziren; "batzuk iazkoak eta beste batzuk berriak", azalpenak eman zituen David Cobosen arabera: "Antza, badago interesa. Jakina, ez da bost minutuan hartzen den erabakia, baina ezezko borobilik ez genuen jaso".

Beraz, asmoarekin aurrera jarraituko dute. Interesdun denekin zerrenda bat osatu gura dute, eta horretarako izena emateko epea irekiko dute irailean udal txean. Ondoren, izena eman duten guztietatik nortzuk eta zelan aukeratu (puntuaketa bidez...) erabakiko dute: "Helburua premia handiena dutenei ematea da". Horren ostean, beste batzar bat deituko lukete testigua eta ardurak aukeratutako kooperatibistek pasatzeko.

Etxebizitza horien proiektua egingo dago. Zortzi dira, bi eta hiru logelakoak, garaje eta trastelekuagaz. Lurra udalarena denez, espekulazioa saihestuko litzateke. Kooperatibisten esku geratuko litzateke proiektua gauzatzeko zein egunean eguneko ondorengo kudeaketa. Etxebizitzak kooperatibarenak izango lirateke, eta bizilagun bakoitzak etxebizitzaren erabilera eskubidea izango luke.

> GARAI

Adjudikatu dute Goieritik herrigunerako bidearen obra

> M.O.

Garaiko Udalak adjudikatu du Goieritik herrigunerako bidearen obra. Azkeneko osoko udalbatzarrean landu zuten gaia, eta erabaki zuten Lasuen enpresari ematea proiektua. 130.000 euroko aurrekontua dauka egitasmoak, baina 110.000 euro Bizkaiko Foru Aldundiak ipiniko ditu.

Aurtengo neguko denboralearen eraginez, errepide horretan lurjausia gertatu zen urtarrilean. Ez zuten bidea guztiz itxi, baina sortutako zuloa konpontzeko beharra zegoen.

Udalaren eskumenekoa da bidea, eta horregatik dabil kudeatzen konponketa. Oraindik ez dago zehaztuta zer epetan konponduko duten kaltetutako errepide zati hori.

> BERRIZ

Merkatariak probalekura irtengo dira aukera azokan

> AMAIA UGALDE

BME Berrizko Merkatarien Elkarteak bosgarren aukera azoka atonduko du bihar, probalekuan. Aurtun, zazpi saltokik parte hartuko dute eta 10:00etik 19:00etara egongo dira bertan.

Honako hauek izango dira parte-hartzaileak: Txaparro janari denda, Boutique Luisa, Ibaiondo burdindegia, Salkin kirol denda, Tipi-tapa eta Txiki-txiki umeen arropa dendak eta Asibar moda denda.

BMEko presidente Satur Blancak azaldu duenez, "jaien jarraipena" izaten da azoka, "jai txiki baten modukoa". Aurtun salmentak nahiko makalak izan dituztela esan du, "beste leku denentzera". Berriztar ugari hurreratzen dela eta erantzuna oso ona izaten dela nabarmendu du.

Datorren astean liburutegia aterako dute Urtiaga plazara

> A.U.

Lau urtetik gorako umeentzako liburuak liburutegitik atera eta Urtiaga kioskora eroango dituzte datorren astean. Berrizko liburutegiak eta Pagotxa elkarteak elkarlanean antolatu dute ekimena, Liburutegi Ibiltaria izenagaz.

Asteleheneetik barikura, arratsaldeko 16:30etik 20:00etara egongo da liburutegia kalean, eta Pagotxa elkarteak begiraleak arduratuko dira bertan umeekin egoteaz. Aste horretan, gainera, Lehen Hezkuntzako ikasleak udal-kuetan egongo dira goizetan, eta liburutegia udal-kuetako ekintzen osagarria izango da.

Eguraldi ona egiten badu, kioskoan egongo da liburutegia. Bestela, udalak probaleku alboan daukan lokala erabiliko dute.

> IZURTZA

Aitzol Bizkarguenaga irabazle, kartel lehiaketan

Guztira, hiru proposamen aurkeztu dituzte udalak abiatu zuen jaietako kartel lehiaketara

> J.D.

Irailean Izurtzako jaiak iragarriko dituen kartel irabazlea aukeratu dute dagoeneko. Udalak irekitako lehiaketara hiru proposamen aurkeztu zituzten, eta udal ordezkariak batzordean batu ondoren, Aitzol Bizkarguenaga Belar durangarren kartela aukeratu dute.

Herriko jaien erakusgarri diren hainbat osagaiekin (dantzariak, bertsolariak, eskupila

lota eta frontenis txapelketako jokalariek, etab.) osatu du kartela Bizkarguenagak. Egitura aldetik, gustura geratu dira kartelagaz, baina kolore aldetik moldaketa batzuk egiteko eskatu diote egileari. Izan ere, kartelean kolore nagusi bi bakarrik agertzen ziren: zuria eta berdea. Moldaketei esker, kartela koloretsuago eta erakargarriago geratuko dela adierazi dute.

> MAÑARIA

Añanako Gatz Haranera bisita, hilaren 13an

Udaletxean edo liburutegian apuntatu behar da

> M.O.

Mañariko Udalak irteera kultural bat eratu du uztailaren 13rako: Añanako Gatz Haranera bisita. Ekimenaren berri eman dute, esanez oraindik badagoela izena emateko aukera; hilaren 10ean amaituko da epea. Udaletxean edo liburutegian apuntatu beharko dute interesdunek.

Goizeko 09:30ean irtengo dute Mañaritik, autobus gel-

tokitik. 11:00etarako, Añanara helduko dira, eta bisita egingo dute. Amaitzean, Gasteizera joango dira bazkaltzera. 14:00etan batuko dira mahaia- ren bueltan. Arratsalderako plan bi ipini dituzte aukeran: arratsaldepa egitea Gasteizen, edota katedrala bisitatzea. Bisita horrek 8,5 euro balio du, eta izena ematean abisatzeko eskatu dute. Irteeraren prezio orokorra hoge eurokoa da.

AUTO BAT EROSI NAHI DUZU?



EDO



AUKERAN?

“BAI, NAHI DUT”



Baiezkoa eman aurretik bidali email bat:

siquierounford@gmail.com edo siquierounpeugeot@gmail.com

ESAIGUZU ZER NAHI DUZUN, NOIZ, ZENBAT GASTATU NAHI DUZUN...

ez zara damutuko!

Gainera, hilabete honetan AUTOMATRIKULATUTAKOen LIKIDAZIO OSOA

FORD KONDIA
PEUGEOT ETORMOBIL

Otaola etorb. - 20600 Eibar
Tel.: 943 20 76 50 (Ford)
Tel.: 943 20 09 66 (Peugeot)



Grupo Kondia

ZIORLA AUTOAK

Santamaña kalea, 19
48215 Iurreta
Tel.: 94 621 71 30

www.fordkondia.com - www.etormobil.com

> DURANGO

TAO zerbitzuaren kontrola handitzeko, adjudikazio berria

PSE-EEK esan du udalak ez zekiela enpresak zenbat jasotzen zuen isunen bidez

> MARCEL ONAINDIA

2006tik Gertek enpresak kudeatzen du TAO zerbitzua. 2012an 21.000 euro ordaindu zituen lizentziagatik eta, horrez gainera, kanon aldakor bat ere ezarrita eduki du: makinan bertan egin beharreko isunen ordainketen %30 udalari ematea. Pilar Rios zinegotziak (PSE-EE) esan du eztabaida ugari egon izan direla udalaren eta enpresaren artean; udalak ez zekien zenbat jasotzen

zuen enpresak isunen bitartez. Antzekoa gertatu ei da gastuekin. Batez ere, aurreko gerentziagaz eduki dituzte tirabirak; aurten aldatu eta gauzak hobeto joan ei dira, "gardenago".

Zerbitzuagaz etekina sortzen dela ikusi dute. "Enpresak beti esan izan du zerbitzua ez zela onuragarria. Aurten, 11.000 euroko etekina aitortu dute", adierazi du Riosek. Adjudikazio berrian kanon aldakorraren

kopurua zein den uneoro jakin ahal izango dute. Baldintzen aldatetan ikusten du arazoa konpontzeko gakoa, ez enpresan.

Sistemari buelta bat ematea beharrezkoa dela uste du Riosek, finantziarioan zein eremuetan. San Fausto, Juan Itziar, Txibitena edo Aramotz auzuneetan aparkatzeko arazoak sortu direla ohartarazi du, askok TAO ez ordaintzearen herri kanpoaldean utzi ohi dutelako autoa.



TAO ordaintzeko makina, Zumalakarregi kalean.

Bai Euskarari sariak banatu dituzte Plateruenean

Ziurtagiridunak euskararen normalizazioan eragiten dabiltzala esan zuen Gutiérrezek

> M. O.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren elkarteak antolatzen duen sari banaketa ekitaldia Plateruena kafe antzokian egin dute aurten. Pasa den barikuan izan zen. Aurretik, bazkaria egin zuten ehun lagun baino gehiagok. Ziurtagiridunak euskararen normalizazioan eragiten dabiltzala esan zuen Gutiérrezek.

Galdakaoko Vusa Eraikuntzak enpresari eman zioten sari bat. Rober Gutiérrez elkarte-ko zuzendariak azaldu zituen

merituak: "Krisi garaian egon arren, euskara planarekin jarraitzen du eta euskararekiko duten konpromisoa adierazteko Bai Euskarari Ziurtagiria urtez urte berritzen jarraitzen du. Gizartearekiko konpromisoa ere aipagarria da, esate baterako Ibilaldia babesten".

Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko ziurtagiridunak sari kolektiboa jaso zuten. Antzuolako Elay enpresako Anaje Narbaiza ere saritu zuten, euskara planagatik, besteak beste.



Elkarteko ordezkariak eta sarituak, familia argazkian. Ziurtagiriaren elkarte

Coello eta Aginako presoak epaitu dituzte

> M.O.

Martitzenean Aitziber Coello eta Asier Aginako presoak epaitu zituzten Madrilan, ETari laguntzea egotzita. Fiskalak hamasei urteko kartzela zigorra eskatu du eurentzat, 2000n Galdakaoko etxe batean lehegailuak batzea leporatuta. Epaiketa amaituta, sententziaren zain daude.

Ertzainek ere euren bertsioa onetsi dute: materialean ez zutela euren hatz-markarik topatu esan dute

Coellok eta Aginakok sasoi hartan ETako kideak zirela onartu dute. Baina, etxea alokatu egin zutela bakarrik, ez zutela erabili. Etxearen erregistroan parte hartu zuten ertzainek ere euren bertsioa onetsi dute: materialean ez zutela euren hatz-markarik topatu esan dute.

Preso biek bete dute zigorra Frantzian ETako kide izateagatik. Hori dela-eta, ab-soluzioa eskatu dute.

> MALLABIA

Azaleko minbizia prebenitzeko kanpaina

Martitzenean, haur parkea ipiniko dute

> JONE GUENETXEA

Eguzki babesaren eta azaleko minbiziaren inguruko kanpaina jarriko dute martxan uztailearen 9an, martitzena, 17:00etatik 20:00etara.

AECC Minbiziaren Aurkako elkarteak haur parkea ipiniko du herriko parkean. Eguzkiarengandik babesteak duen garrantzia umeen artean ezagutzera ematea eta informazioa zabaltzea da helburua.

Elkarteak 60 urte egin ditu aurten gaitz horren aurka lanean. Udalak diruz laguntzen du elkarteak.

AECC Minbiziaren Aurkako elkarteak haur parkea ipiniko du herriko parkean

> IURRETA

Edaria, goxokiak eta sardinak San Kristobal egunez

> AITZIBER BASAURI

San Kristobal jaiak ospatuko dituzte egunotan Arriandin. Ohiturari eutsiz, sardinak, goxokiak eta edariak banatuko dituzte San Kristobal egunez, eguaztenean. Aurretik, meza izango da Azkorran 19:00etan.

Zapatuan, berriz, afaltzeko elkarteko dira auzokoak, 21:00etan. Aurretik, asto probak ikusteko aukera ere egongo da Amezketako eskola inguruan; 18:00etan hasiko dira.

Azaleko minbiziari buruz Bestalde, Minbiziaren Aurkako Elkartearen eskutik, eguzkitik babestu eta azaleko minbiziari aurre hartzeko informazioa emango dute, uztailearen 18an. Dantzari plazan izango dira 10:00etatik aurrera.

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

IURRETA

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea - 94 681 66 73 - Iurreta
www.zarateyelexpe.com

Elorrion ere aukera onak

GAER

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITZAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ez. - Tel./Faxa: 94 622 57 74 / 658 75 72 79 - BERRIZ

> DURANGALDEA ASTEON**Gazteluko jaiak amaituko dira bihar arratsaldean**

Abadiñoako Gaztelu auzoko jaiak bihar amaituko dira, zapatuan. Eguaztenean hasi ziren, donien-atxa igota. Atzo meza eta dantzariak egon ziren, gainera.

Bihar, umeentzako quadak egongo dira erabilgarri, eta iluntzeko 20:30ean tortilla lehiaketa egingo dute.

Euskararen aldeko bosgarren iPadaren zozketa egin dute

'Salerosketak be euskaraz' kanpainaren barruan, hainbat iPad zozkatu dituzte urte osoan, eta asteon esan dute zein den bosgarrenaren zenbaki saritua. Lehen zenbakia 197.261 da, eta Kaijala arropa dendan banatu dute. Bigarrena 169.832 da, eta Metro kopistegian eman dute.

Domekan, bueltan datoz Ezkurdiko Udako Dantzaldiak

Durangoko Udaleko Adinekoen sailak Udako Dantzaldiak antolatu ditu aurtengo udarako ere. Antzinako dantzaldien erakoak dira, *Txixarrilloak*.

Domeka honetan izango da lehenengoa, eta hilaren 14an, 21ean eta 28an izango dira hurrengoak, azaldu dutenez. Duo Marfil taldeak ipiniko du musika saio guztietan.

Eguaztenean, Pinondon batuko dira frackingaren kontra daudenak

Hainbat lagunek frackingaren -haustura hidraulikoa- kontrako taldea eratu gura dute Durangaldean. Horretarako, batzarra deitu dute datorren eguaztenerako; Durangoko Pinondo etxean izango da, 19:00etan. "Ez dira data onak, baina Bernagoitin hasi dira jada lanean", adierazi dute batzarra bultzatu dutenek.

Joan zen astean, berbaldia egin zen gai beraren inguruan, Pinondon.

> ZALDIBAR**LOMCE hezkuntza erreforma gaitzetsi du udaleko gehiengoak**

LOMCEren kontra agertu dira udaleko hiru alderdietako zinegotziak, PPkoa kenduta; mozioa herriko hezkuntzako eragileek bultzatu eta proposatu dute

> ITSASO ESTEBAN

Espainiako gobernuaren hezkuntza erreformarako aurreproiektuaren kontra agertu ziren pasa den eguneko udalbatzarrean Bildu, EAJ eta PSE-EEko ordezkariak. Erreforma, "ratione iguera, ikasleen bereizketa, hezkuntzaren merkantilizazioa, pribatizazioa, curriculumaren uniformizazioa, euskara gutxiestea, edota erlijio katolikoaren in-

posaketa" dakartzala salatu dute hiru alderdi horiek. Erreforma defendatu eta mozioaren kontra bozkatu zuten, ostera, PPk.

"Erreformarekin Francoren garaira bueltatuko ginatke, eta Jaurlearitza dagozkion konpetentziak ez errespetatzea leharke", azpimarratu zuen EAJko Nerea Garitonandiak. "Aurreproiektua atzerapauso handia da eta behar duguna kalitatezko



hezkuntza publikoa da", esan zuen Arantza Baigorri alkateak.

Mozioa herriko hezkuntzako eragileek bultzaturikoa izatea goraipatu zuen Javier Tera PSE-EEko kideak. Izan ere, Zaldibarko herri eskolako guraso elkartearen, irakasleen, jantokiko langileen eta hezitzaileen babesagaz aurkeztu zuten hezkuntza erreformaren kontrako mozioa udalbatzarrean.

Jaietako kartel lehiaketa hutsik geratu da, plagio salaketagatik**> JONE GUENETXEA**

Zaldibarko jaietarako kartel lehiaketa hutsik uztea erabaki du udalagintza plagio salaketa bat dela-eta. Arantza Baigorri alkateak baieztatu duenez, "2010eko Hondarribiko jaietako kartel egilearen senitarteko batek udalera deitu du, plagioa gertatu dela salatuz. Irabazleari sarria ez ematea erabaki dugu".

Ainhua Zabarte Zaldibarko kartelaren egileak bi kartelek antza dutela aitortu duen arren, berak ez duela kopiatu nabarmendu du.

**> OTXANDIO****Martxaren ostean, aldundi bien erantzunaren zain daude****> JOSEBA DERTEANO**

Pasa den barikuan eta zapatuan autobus zerbitzu "publiko eta duin" baten alde erabiltzaileek Durangotik Gasteizera egin zuten martxan, 30 bat lagunek parte hartu zuten. Ondoren, Araba-

ko Foru Aldundiko egoitzaren parean kontzentratu ziren. Aurretik, Bizkaiko Aldundian ere kontzentrazio bat egin zuten. Orain erantzunaren zain daude: "Erantzunik jaso ezean, zarata ateratzen jarraituko dugu".



Martxako kideak Gasteize, Arabako Foru Aldundiaren aurreko kontzentrazioan.

Herri eztabaida ireki da abentura parkea dela-eta**> J.D.**

Olazar inguruan ireki gura duten abentura parkeak zeresana eman du herrian. Ondorioz, udalak batzar irekia egin zuten gai horren inguruan. Batzar horren ondoren, honako hau erabaki du udalak: uztailaren 10era arte, 20 bizilagunek gutxienez, Herritarren Kontseilua deitzeko eskaera egiten badute udaletxean kontseilua deituko dute. Kasu horretan, kontseilua hilaren 16an deituko lukete. Prozesuan ahalik eta gehien sakondu arte, ez dute ezer esleutuko.

> ABADIÑO**24 gaztek egingo dute udalekuetan lan****> I.E.**

Udaleko gobernu taldeak ohar batean jakinarazi duenez, 24 gazte kontratatu dituzte udalekuetan eta udako ludotekan jarduteko zabaldu duten lan-poltsari esker. Guztira, 92 gaztek eman dute izena begiraleen lan-poltsa honetan. Udalak azaldu duenez, aurkeztu direnetariko gehienak Abadiñoako bertakoak edota inguruko herrietakoak dira, baina eskualdetik kanpoko hainbatek ere eman dute begiraleen lan-poltsa horretan izena.

Zaborren tasa zehazteko baremo berriak**> I.E.**

Zabor gehien sortzen dutenek tasa altuagoa ordaintzea arautzen duen ordenantza berria onartu zuten Abadiñoako Udalean joan zen astean, aho batez. Janari saltokiei eragingo die, batez ere, udalak zaborren ordenantzan egindako aldaketa honek. Jose Luis Navarro alkateak adierazi duenez, "tasak bidezkoago egitea" izan dute helburu tarifa aldaketa honeguz. Batez ere, bankuek, hipermerkatuek eta industriak igarriko dute aldaketa.

katerin ardoak
iñaki uribe
saltsan

Eguneko eta asteburuetak menuak - Delikatessena - Ardoteka
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO

▶ Berbaz

Santi Reyes | Bizkaidenda federazioko kudeatzailea eta Durango Bai elkarteko kidea | 35 urte, Durango



“Aurten, beherapenak handiagoak izango dira hasieratik; dende likidezia behar dute”

Beherapen garaia da. Lehen, merkatarientzako garai oparoa izaten zen hau, baina aurten ez da hain ona izango, Santiago Reyesen ustez. Dendak Bai merkatarien elkarteko kideek bizi duten egoerari buruz eta etorkizuneko erronkei buruz berba egin du Reyesek.

> AMAIA UGALDE

Zer egoeratan heldu dira Durangoko merkataria udako merkealdira?

Egoera nahiko txarra da, eta beherapenekin egoera hobetzen den arren, oraino ez dira irtenbidea izango. Suposatzen dut beherapenak ez direla onak izango. Erostea grina bat izaten da, eta egoera honegatik ez dira egoten halako bulkadak. Aurreko beherapenak nahiko txarrak izan dira, eta hauetan ere erosketak egongo dira, baina ez beste urte batzuetan moduan. Erosketak txarrak izan dira denboraldian, eta beherapenetan gehiago salduko bada ere, ez dira onak izango.

Normalean baino beherapen handiagoak egongo dira?

Kalean %50eko deskontuak ikusi ditut. Bai, beherapenak handiagoak izango dira, hasieratik. Normalean azken momentuan jaisten dira gehien prezioak, eta orain hasiera-hasieratik egingo dute denda askok. Likidezia behar da, dirua, irailean hasiko den denboraldi berrirako erosketak egiteko. Lehenago salmentak txarrak izan direnez, ahalik eta gehien saldu gura dute orain.

Arropa sektorean, batez ere?
Sektore guztietan. Hasieran

etxeko altzari eta ekipamenduetan igarri zen gehien, eta orain, nahiko kolpe handia izaten dabil arropa eta oinetakoen arloan. Sektore denetan igartzen da, elikaduran eta ostalaritzan gutxi, agian.

Denda asko zarratu dira?

Batzuk bai. Aspalditik dauden dende negozioren egoerakoa dute, baina berrientzako, batez ere, egoera gaitza da. Durangon krisiaz gainera, beste arazo bat daukagu: errentak desproporzionalak dira, Bilbokoak bezalakoak. Zerbaitegatik hastea hemen... Adibidez, Montevideo etorbidea leku dotorea da denda bat edukitzeko, baina 1.000-1.400 euroko errentak ordaindu behar dira, eta Durangoko salmenta fluxuekin ezin duzu alokairu hori ordaindu. Beste leku batzuei buruz ere berba egin dezakegu, baina Montevideon, dendak zabaldu eta ixten ari dira eten barik.

Elkartean gorabehera asko igarri duzue?

Elkartean ia berrehun denda gaude, eta krisia hasi baino lehen ere antzeko kopurua geneukan. Pasa den astean, alarma piztu zuen datua atera zuen Ecobik: Bizkaian, 3-4 urtean, 2.000 denda zarratu dira. Egia

da, baina 1.700 eta piku zabaldu dituzte. Psikosi puntu bat ere badago.

Pasa den astean elkarteko batzar nagusia izan zenuten. Zer edo zer berririk erabaki zenuen?

Estatutuak hobetzeko proposamenak egin genituen. Tartean, gizarteratzeko enpresa bat sortu gura da. Langabetuei eta gizarteratzea gaitz daukatenei aukerak ematea izango litzateke enpresa horren helburua.

Durangoko tren geltoki ondoko merkataritza zentroaren inguruko zer berri duzue?

Oraindik bisitak egiten dabilta azpiegituretara. BM supermerkatua egongo dela badakigu, baina ez dakigu nor gehiago joango den. Esan digutenez,

“

Durangon, krisiaz gainera, beste arazo bat daukagu: errentak desproporzionalak dira”

saiatuko dira arropa operadore nazional bat ekartzen, baina ez dakigu Inditex edo zein izango den. Guk pentsatzen dugu halako egitura bat ona izango dela Durangorako. Traktore lana egingo luke. Durangoko jendea Bilbora, MaxCentererra joaten da Bershka eta Stradivarius lako dendetan erosteko. Hemen egoten bada, hobeto. Jendea Durangon geratuko da erosketak egiten. Hemen inguruan biztanle kopuru handia daukagu, eta nahiz eta denda asko eduki, gauza batzuk falta dira, eta gazteak batez ere, herritik kanpo joaten dira erosketak egitera. Hori ikusi egiten da. Konturatzen bazara, Durangon jende nagusia egoten da arropa erosten.

Durangoko dendarik egongo da tren geltoki ondoan?

Lehentasuna eduki dugu, informazioa eman digute... Baina azpiegitura ikusita, bertako dende beste zerbait gura dute. Errenta garestia da gainera, eta egoera ez dago halakoetarako.

Zer erronka dauka Dendak Bai elkarteak?

Arazo handi bi ditugu: finantziarioa eta merkatariek ondo erostea. Finantziarioaren gaian, orain, denboraldi berrirako arropa erosteko adibidez, oso

gaitza da bankuek kredituak ematea. Ia dendari denak autonomoak dira, eta kredituak lortzeko, euren ondarea ipini behar dute, eta denda txarto badabil, ondare hori arriskuan egon daiteke. Baina noski, arropa gehiago erosi behar, bestela ezingo da saldu-eta. Iaz, abal finantziarioen programan 600 milioiko partida zegoen sektore guztietarako, eta hortik 43 milioi baino ez ziren gastatu. Horrek ez dauka zentzurik. Arlo horretan hitzarmenak egiten gabiltza. Bestalde, ondo erosi behar dugu. Batza Durangaldea erosketen zentroa sortu dugu Amankomunazgoaz. Oinarrizko gauzak denok batera erosteko eta elektrizitatea, aseguruak... merkatzeko balio du zentro horrek, eta hor, egiteko lan asko dago.

Zer gomendio emango zenioke denda bat zabaldu gura duenari?

Lehenengo, informazioa jaso eta ikusteko ondo zer konpetentzia dagoen, zenbat jende pasatzen den leku horretatik... Jende asko bizi da Durangon, eta bezeroak egon badaude. Durango plaza ona da, leku dotorea denda bat edo taberna bat edukitzeko. Garrantzitsua da non ipini erabakitzea. Ondo pentsatu behar da non eta zerekin hasi lanean.

EDERTASUN GIDA



Jon Sopelana

Uda sasoiko koloreak

Jon Sopelanak Lunik ileapaindegia dauka Durangon.

Udan sartuta, baduzue tratamendu berezirik?

Uda sasoiak heldu da, eta kolore desberdinak nagusitzen dira gure bizitzan: arropan, osagarrietan, eta, noski, ilean ere bai. Natura jakintsuak, ilea argitu eta horitu egiten du apur bat, gure azal beltzarangaz hobeto uztartuta. Baina, gertatu ahal da ilea lar argitzea, eta hori orekatu egin behar dugu. Luniken, kolore horiek personalizateko prest gaude. Bezero bakoitzaren gustuetara egokitzen gara. Kolorean lehenengo galtzen dena distira izaten da. Hori mantentzeko, oso garrantzitsua izaten da tratamenduak hartzea. Ilea sikatzenez, ile-egokitzailak ere beharrezkoak dira.

Abuztuan itxiko duzue?

Ez. Martitzenetik zapatara goizez, eta eguenetan 21:00ak arte. Manikurak eta pedikurak egiteko une egokia da, eta horretarako ere prest gaude.

6 AHOLKU ZURETZAT

- 1 Udan, gertatu ahal da ilea lar argitzea, eta hori orekatu egin behar dugu
- 2 Kolore horiek personalizateko prest gaude, bezeroen gustuetara egokituta
- 3 Distira mantentzeko, oso garrantzitsua izaten da tratamenduak jasotzea
- 4 Ilea sikatzenez, ile-egokitzailak ere beharrezkoak dira
- 5 Udan hobeto da ile luzea edukitzea; itxura freskoa emateko, batuta eroan
- 6 Estetikoki ere hobe da ile luzea; biluzik geratzen den sama estaltzen du



ESTETIKA ZENTROAK

30€
NOBETADEA
MUNDU
ORDAN

BETILEEN
MAKILLAJE
IRAUNKORRA
21 EGUNEAN

Ana Camarero
Edertasunerako tratamenduak eta arikakulturak

Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILLAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango



ILEAPANDEGIAK

NUKLEO
ileapaindegia

myspace.com/pelukerianukleo

Nizeto Urkizu, 14 beheak • Elorrio • Tel.: 94 658 29 96

LUNIK ileapaindegia

Antso Estegiz, 1 - Durango - 94 621 64 91



Profesional onenak zure zerbitzura!

Iritzia

> GUTUNAK



gutuna@anboto.org
eguztzeneko 17.00ak arteko epea

Lanpostuak defendatu. Etorkizuna irabazi

Durungaldeko Gazte Komunisten Batasunak honako hausnarketa hau egin du lan hitzarmen kolektiboen defentsaren inguruan:

Patronalak edozein prezioan ezarri nahi du lan-erreforma. Horregatik, lanpostua eta etorkizuna bermatzeko langileok dugun bide bakarra borroka bateratua da. Langileok defendatzen dugun hitzarmen kolektiboa defendatzea soilik pauso bat da burgesiaren nahien kontrako erresistentzian.

Enpresariak langileen kontra jo dute lan-indarraren esplotazioa handitzeko eta langileok lortutako eskumenak ezabatzeko, modu hori baita kapitalismoak daukan bide bakarra krisi estrukturalari aurre egiteko.

Kapitalismoaren pean gutxi batzuk aberasten dira gehiengoaren lanaren bizkarrera. Krisi honetan, haiek gero eta aberatsago bihurtzen ari dira, eta gu, langileak, gero eta pobreako. Langabeziaren igoera, lan-prekarietatea eta bizi-kostu altuak dira burgesiaren erabil-tzen dituen tresnak etekin gehiago ateratzeko. Klase sozialen arteko borrokan, argi dago haiek ala gu garela, ez dagoela erdibiderik.

Sindikatuaren desadostasunak langileen posizioak ahuldu ditu azken urteetan. Desadostasun hori sindikatuaren kupulen izaera oportunistengatik izan da. Zentzu honetan, gizarte klase berdinekoak garenez, denok bat eginez aurre egin behar diegu gure etsaiei. Gure kolpeak norabide berean joan behar dira. Gazte Komunisten Batasunetik honako hau proposatzen dugu: langileak bateratzeko oinarritik hasi behar gara, lantoki bakoitzean, ekintzak eta egin beharreko helburuak antolatuta. Denok batera, antolakuntza ereduak eraiki ditzakegu borroka goi mailetara bultzatuz eginez; horrela, gure gizarte mailako intereseko helburuetara jo ahal izango dugu.

Guztuen erantzukizuna da klase sindikalismo borrokalaria berreskuratzea, Itun Sozialaren diskurtsoa bertan behera utzita, eta gure posizioak indartuta, oligarkiaren aurrean. Langileok elkartuta, borroka partzial guztiak bat eginda soilik egin ahal izango diogu aurre burgesia aseegin eta krudelari.

Borroka da bide bakarra estatu sozialista eraikitzeko.

Durungaldeko Gazte Komunisten Batasuna

> KLIK BATEAN



Zelan izan daiteke?

Elorriar batek argazki hau bidali du *Anboto*ra. Herriko historiaren informazioa daukaten paneletako bat baten batek apurtu duela eta kexu agertu da *Anbotoko* irakurle hau: "Ez dut ulertzen zelan bururatu zaien horrelako gauza bat apurtzea. Oso panel sendoak dira gainera. Jendea kalera motozerragaz irteten da ala?"

Elorrio

SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI
DIAZ

EAJ




Parte hartu Duran20-n

Hasia da, jada, etorkizuneko Durango irudikatze prozesua. Aspaldian martxan jarrita dagoz pertsona asko eta asko, nekez eta gogoz, hurrengo urteetan abian ezarri beharreko proiektuak pentsatzen, zehazten eta neurtzen, bai epeen aldetik, baita aurrekontuaren aldetik be. Bai, jaun-andreok, Tokiko Agenda 21eko prozesu parte-hartzaileari buruz ari naz, noski. Batzarrak guztiz zabalak dira, herritar oro dago gonbidatuta, ondo etorria, eta iritzi guztiak dira baliagarriak zein balioetsuak. Oraingoan Durango 2020an zelakoa izango dan irudikatzen ari gara. Gure herriak hainbat eta hainbat eraldaketa bizi izango ditu hurrengo urteetan: bai arlo ekonomikoan, bai gizartean, baita eremu fisikoan be (egitaterik esanguratsuena trenbidearen desagerpena da, baina badagoz beste batzuk be). Eta horiek guztiak neurritz, seriotasunez eta soseguz aztertu beharra dago, danon artean, guztion artean (parrokiaren batera bilduriko parte hartze itxurakeriatik oso urrun dagoen ahalegina, noski).

Berau da abian jarritako prozesuaren helburua, eta berau da EAJko Gobernu Taldeak bultzatu daben lan parte-hartzailea. Errespetu osoz, eta sendotasun osoz. Bai eta malgutasun osoz be, hau da, esku hartzeko bide barriak bilatu eta egikaritzu be. Horretara sortu dira estalpe berean babesturiko beste ekimen herritar parte hartzaile batzuk: trenbide zaharrean zer irudikatu ahal dan zehaztu daben neska-mutilen taldeak (parte hartu daben ikastetxei mila esker!) edota hirigintza alorrean Durangoko plangintza orokorra (hau da, zer, noz eta zelan eraikiko eta ezarriko dogun gure herrian etorkizunean) eratzeko herritarren esku-hartze taldea sortzea.

Hauxe da, zalantza barik, herri ekimena, herri lana, herritarren lankidetzeta, behar serio eta zentzuzkoa, kontuan hartu beharrekoa. Beraz, gonbidapen zabala danori: parte hartu Duran20 ekimenean!



Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - astekaria@anboto.org

• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • NAN zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideei jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

-DATUOK BARIK, EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko uztailaren 5a
11. urtea - 508. alea

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretzi Alonso,
Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onaindia
eta Amaia Ugalde.
Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Goiztzi Etxeita.
Argazkilaria: Kepa Aginako,
Zaldua Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

Ndiaya Gueye, 'Njaaya' | Dakar (Senegal). Lyonen (Frantzia) bizi da. | Musikaria**> ITSASO ESTEBAN**

Azkenengo diskoa aurkeztera zatoz Durangora, ezta?

Bai. *Social living* izeneko nire lehenengo diskoa aurkeztera joango naiz zuenera, baina Senegalen eta Frantziaren elkarlanetik sorturiko bigarreneko kantak ere eskainiko ditut.

Lehenengoa izanda, zer esan gura du 'Social living' diskoak zure musikako ibilbidean?

Social living diskoak aukera eskaini dit, batetik, musikan lekutxo bat egiteko; eta bestetik, baita pertsona bezala hazteko eta irekitzeko ere.

“

Beste artista batzuekin elkarlan musikalean jarduteko joan nintzen Frantziara”

Zer proiektu daukazu orain esku artean? Nondik zabilta?

Frantzian daramat urte eta erdi. Beste artista batzuekin elkarlan musikalean jarduteko asmoagaz joan nintzen bertara, eta hortik sortutako hartu-emanek aukerak zabaldu dizkidate Frantzian zehar hainbat kontzertu eskaintzeko ere.

Zelakoa izan zen zure musika ibilbideko hasiera?

Hasieran, batez ere aitarekin (goian bego) ez zen batere bide erraza izan, berarentzako ikasketak baitzeuden beste edozeren aurretik.

Zelan dago ikusita Senegalen emakume batek rapa egitea?

Hasieran arazoa zen gurean, baina gaur egun, ez da txarto ikusten. Izan ere, pentsakerak aldatu eta aurrerapausoak egon dira. Positiboa iruditzen zaie orain.

“Nire herrialdeak eta hango musikek oso eragin nabarmena dute nigan”

Beat Salad ekoiztetxeak eta JAPPOO senegaldarren elkarteak antolatu dute Platerueneko biharko kontzertua. Ndiaya Gueye 'Njaaya' musikariaren ahotsa izango da Senegalgo musiken erakusgarri



Zergatik esaten duzu musika parte-hartzerako eta tolerantziarako bidea izan daitekeela?

Uste dut gizartean parte hartzen lagundu dezakeela arteak. Musika da nire artea, eta horrek ahalbidetzen dit errealitateak ezagutzea eta transmititzea. Horrek gizarte eragile bihurtzen nau ni neu ere.

Rapean hasi zinen arren, jazz musikara gerturatu zara gehiagorik azkenaldian, ezta?

Bai, izan ere, musikarekiko dudak maitasunak eta grinak ez diete mugarik ipintzen nire inspirazio eta sentsazio artistikoei. Irekitasun horri esker hurreratu naiz jazzera.

Zer harreman daukazu zure herrialdeko, Senegalgo, musika tradizionalarekin?

Nire herrialdeko musika tradizionalarekin harremanik ez edukitzea nire sustraiak moz-

tea litzakete. Nire herrialdeak eta bertako musikek oso eragin nabarmena dute nigan. Lotura horri esker egon naiteke, esaterako, bihar, nire sorkuntzak erakusten Durangon: Omar Om-

zoren eta Durangoko senegaldarren elkartearen laguntzari esker. Plazera da niretzat bertan egon ahal izatea, eta zuek ere Senegalen eta munduan zehar bidaiatzera gonbidatzea.

Hip Haf Entertainment ekoiztetxearen eskutikSenegalgo Dakar hiriburuko La Medina auzoan hazitako Ndiaya Gueye *Njaaya* abeslari eta gitarristak erakarriko du, bihar, Durangoko Platerueneko musika jailldira jende gehien.Senegalgo emakumezkoen lehenengo rap taldean jardundakoa da Ndiaya Gueye *Njaaya*. Duela sei urte talde hori utzi zuenetik, bestelako musika estiloen bilaketan aritu da: Senegal-

go doinu tradizioaletik, souletik eta jazzetik gertuago dauden doinuei lotuta dihardu orain.

Durangoko Beat Salad ekoiztetxearen inguruko hiru artistaren emanaldia ere izango da bihar: Eneko eta Itsua anaiek eta Omar Omzo hip-hoplarik ere kantatuko dute, Plateruenean.

hitz
liburudenda
artekalea 14 durango 94 681 07 76
 info@hitzliburudenda.com

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER
ERAIKUNTZARAKO MATERIALA BERRIZ, S.L.
BILTEGIA ETA ERAKUSTOKIA
Eitua Industriagunea, 66
Tel./Faxa: 94 682 78 90
48240 Berriz (Bizkaia)
macober@movistar.es

Zeramika eta gresen salmenta • Zementuak - isolamenduak
- pladurra... • Eskaintzak lehen mailako zeramiketara •
2. mailako baldosak trastelekuetarako.
Den-dena MACOBERren, Berrizen!

BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

> ARGAZKIGINTZA

Begira argazki jaialdia udaletxeko plazan ere, herritar denen bistara

Formatu handiko bost erretratu ipini dituzte Durangoko udaletxe pareko eraikinaren fatxadan

> **ITSASO ESTEBAN**

Ivan Urarte, Goiuri Aldekoa-Otalora, Iñaki Folgado, Alba Castrillo eta David Vilanovaren argazkiak daude Durangoko postetxea izandako eraikinaren fatxadan, udaletxe plazan. Begira argazki jaialdiaren barruko ekimena da: antolatzaileek herritar guztiei zabaldu zieten erretratuak bidaltzeko deialdia, eta jasotako artean aukeraturikoak dira bost hauek. Uztailaren 14ra arte egongo dira Durangoko udaletxeko plazan ikusgai.

Uztailaren 14ra arte egongo da Juan Diego Valera argazkilariaren 'Coma' Arte eta Historia museoan

Uztailaren 14an amaituko da Begira argazki jaialdiaren hirugarren edizioa. Egun horretan kenduko dute Platerueneko fa-

txadatik ere Zalao Fuertes argazkilariaren *Azala* lana.

Oraindik bisitatu ez duenak, uztailaren 14ra arte du aukera, baita, Juan Diego Valera Argentinako argazkilariaren Durangoko Arte eta Historia museoko erakusketa ikusteko. *Coma* du izena, eta egilearen berbetan, "etenbako aldaketa, eboluzio, dekonposizio eta desagertze prozesuan dagoenari buruzkoa da".

Hiru proiektzio saio egin dituzte, bestalde, Begira jaialdiaren barruan, Durangoko Arte eta Historia museoan, asteon. Txileko argazkilari talde batek euren herrialdean zehar egindako bidaiaren argazkiak erakutsi dituzte lehenengo saioan; BlankPaper eskolari buruzkoa izan da bigarrena; Guatemalako GuatePhoto jaialdiko parte-hartzaileen lanen selektzio bat ere eman dute; eta Ingalaterrako Bristol eta Birmingham hirietan garaturiko IC Visual Lab kolektiboaren lanak erakutsi zituzten atzoko proiektzioan.

**GEURE DURANGALDEA****JON IRAZABAL**

Gerediagako kidea



R. Gutierrez

Azaroaren 22an beteko dira 50 urte Mexikon hil zela Ricardo Gutierrez, arte munduan *Juan de la Encina* gaitzizenarekin ezaguna. 1883. urtean Bilbon jaio zen Espainiako arte kritikaririk onenetarikoak. Euskal artean ere aditua zen. 1919an argitaratu zuen *La trama del arte vasco* liburua, eta oraindik euskal artea ulertzeko oinarritzotzat jotzen da.

Zubiaurre margolariei esker, hauen arreba Pilar ezagutu zuen, eta harekin ezkondu zen 1922. urtean. Pilar kultur ekintzailea zen. Madrilen oso famatuak ziren berak antolaturiko *Los sábados de los Zubiaurre* tertuliak.

Ricardo Madrilgo Arte Garaikideko Museoko gaur egungo Reina Sofiaren aitzindariaren zuzendari izendatu zuten 1931n. Gerra heldu zenean, lan oparoa egin zuen bere museoko altzorrak babesten. 1939an Mexikora erbesteratu zen bere emaztearekin eta seme Leopoldorekin.

Mexikoko arkitektura eskolako eta unibertsitate autonomoko irakasle izan zen. Bere amaren heriotza zela-eta, Espainiara bidaiatu zuen 1951n Pilarrek, eta Gairaira hurbildu. 1955ean, gogo handirik gabe berak utzitako lurra eta gizartea ez zuela aurkituko jakinda, Ricardok Europara bidaiatu zuen. Parisen Negrin, bere lagun handia, azken aldiz bisitatu zuen, eta ondoren, Bilbo eta Gairaira joan zen. 1963an eroriko baten ondorioz femurra apurtu zuen, eta ebaketaren zain zelarrik hil zen, 80 urterekin, Ricardo Gutierrez jauna.

Oraingoz Mexikon dago hobiraturik. Pilarren eta Leopoldo bere semearen ametsa eta nahia, familia oparo horren beste senideena bezala, Ricardoren aztarnak Garaiko hilerrian ehortziak izatea da.

> **MUSIKA**

Bartolome Ertzilla eskolako lorategia estreinatzen

Khantoria boskoteak joko du egunean, lorategian



Duela urte bi Durangon estreinatu zuten *Bereterretchen oinatzak* lana eskainiko dute Khantoria taldekoek, egunean, Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolako lorategian. Uda Kalean Bizi programazioaren barrukoa da emanaldi hori, eta, lehenengoz erabiliko dute musika eskolako lorategia programazio horretako emanaldi baten kokapen moduan.

Taldearen ohiko formazioari beste musikari bi gehitu eta boskote moduan jardungo dute Durangoko kontzertuan

Ander Berrojalbiz Khantoria taldeko kide durangarrak Uda Kalean Bizi programazioaren aurkezpenean adierazi zuenez, Erdi Aroko musiken zuzeneko interpretazioa eta kantuen historiari buruzko azalpen laburrak uztartuko dituzte eguneko emanaldian. Izan ere, musikariok euskal musika herrikoia- ren jatorriaren inguruan azken urteetan egindako ikerketa da emanaldiaren ardatza.

Taldearen ohiko formazioari —Ander Berrojalbiz, Maider Lopez eta Virginia Gonzalo— beste musikari bi —Kerstin Ansoze eta José Menéndez— gehitu, eta boskote moduan jardungo dute Durangon. Biolina, biola, organetto, harpa gotikoa, edota txi- rula bikoitza joko dituzte.

Hemen agertu gura badozu deitu!

94 621 79 02

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

UZTAILAK 6 22:30ean

NJAAYA

MUSIKA SENEGALDARRAREN BELAUNALDI BERRIA.

+Gunflow eta Beat Salad Crew.

Antolatzaileak: HIF HAF entertainment eta Durangoko Senegal elkartea JAPOO Sarrera: 5-8 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

CABARET

The Petit Théâtre de Pain

Uztailak 6 • 20:00

Ezkurdin (euria bada San Agustinen)

KHANTORIA BOSKOTEA

Bereterretchen oinatzak

Uztailak 11 • 20:00

Bartolome Ertzilla Musika Eskola

San Agustin KULTUR GUNEA

> EMANALDIA**> ITSASO ESTEBAN**

Iaz Bergarako musika eskolaren 25. urteurrena ospatzeko sorturiko ikuskizuna da domekan berriro Elorriora dakarten *Peter Pan* musikala. Bigarren aldiz eskainiko dute emanaldia Elorrioren, baina Musikaire nazioarteko jaialdiaren barruan datoz oraingoan. Domekan, 22:30ean hasita eskainiko dute emanaldia, Elorrioko plazan.

Iaz Bergarako musika eskolaren 25. urteurrena ospatzeko prestatu zuten 'Peter Pan' musikala

Elorrioko plazako etziko emanaldian, 85 partaidek jardungo dute oholtzan: umeak gehienak

Bergarako musika eskolaren urteurreneko ospakizunerako, umeak protagonista izango ziren zerbait berezia sortu gura zutela, eta horrela abiatu zutela *Peter Pan* musikala azaldu du Marije Ugalde Bergarako musika eskolako zuzendariak. Orduetik hona, eta urte biko lanaren ostean, musikal handia sortu dute. Elorrioko plazako etziko emanaldian, 85 partaidek jardungo dute oholtzan, kantuan eta antzeztan.

Eskolako zuzendariak azaldu duenez, Bergarako eskola osoa inplikatu da azken hileetan proiektu honetan: ikasleak, irakasleak eta gurasoak elkarlanean aritu dira ikuskizuna prestatzen. Lan borobil hori izango

Bergarako musika eskolako umeak protagonista, 'Peter Pan' musikalean

Musikaire jaialdiaren barruan, 22:30ean eskainiko dute emanaldia domekan, Elorrioko plazan



Joseba Leturia

da uztailearen 7ko Musikaireko hitzorduan ikusgai.

Batez ere, umeek ikuskizunean egiten duten lana azpimarratu gura izan du Marije Ugalde musika eskolako zuzendariak: "Antzezpenean zein kantuan, hasi ginenetik orain arte, izugarri hazi dira umeak".

Urrian Kursaelean eskainiko du Bergarako musika eskolak 'Peter Pan' musikalaren emanaldia

Ugalderen berbetan, herriko kolaboratzaileek egindako dekoratuak ere ikuskizunaren ezagarrri nabarmenak dira: "Lan bikaina egin du talde teknikoak ere eszenografian".

Eskolako zuzendariaren berbetan, "musika zoragarriko ikuskizuna da" *Peter Pan*: es-

kolako irakasle eta ikasle ohien 26 partaideko orkestrak jardungo du musika eskaintzen.

Bergaran eskaini zituzten hiru emanaldigaz estreinatuta zuten lana, eta Elorrioren eta Bilbon ere egin izan dituzte emanaldiak. Urrian, Donostiako Kursaelean eskainiko dute.

> DANTZA

'Drumbreak': perkusio eta dantza ikuskizuna

Berrizko Olakueta plazan eskainiko dute, gaur

Gaur, 19:30ean hasita eskainiko du Deabru Beltzak konpainiak bere azken lanaren emanaldia, Berrizko Olakueta plazan. Leioako Umore Azokan aurkeztu zuen Deabru Beltzak taldeak *Drumbreak* lana, eta Iurretako Kalez Kale jaialdiaren barruan ere izan da hil honetan ikusgai. Apirilean, Break On Stage jaialdian

Ikusle guztientzako espektakulu harrigarria da 'Drumbreak', eta ordu erdiko iraupena dauka

aurkeztu zuten, eta asteen Bilbo burutu duten Kalealdia jaialdian ere erakutsi dute.

Perkusioa eta break dance-a uztartzen ditu Deabru Beltzak taldeak ikuskizun berri honetan, eta perkusioaren erritmoen eta koreografiaren mugimenduen arteko "borroka" da ikuskizunaren ardatza.

Lau antzezlek jardun dute Deabru Beltzak konpainiaren ikuskizun berri honetan. Ikusle guztiei zuzenduriko espektakulu harrigarria da *Drumbreak*, eta ordu erdiko iraupena dauka.

Deabru Beltzak kale atzerkiko taldea 1996an sortu zen, eta esperientzia eta ospe handia lortu ditu urteotan.

#talentueplazara!



Zuk jarri talentua
eta guk jarriko dizugu plaza!

16 urtetik gora badituzu eta
taldean zein bakarka haur eta
gazteentzako ikuskizun bat
eskaintzeko prest bazaude, zatoz!

Eman izena
uztailaren 12a orduko!

informazio
gehiago:

www.berbaro.com

☎ 946 201 918

🐦 @berbaro

📘 Berbaro Eikartea



Kirola

EGOITZ JAIKO | 32 urte, Abadiño |

“*Beti eduki izan dut buruan nazioartera joatea jokatzera*”

Egoitz Jaiok Austriako Wacker Innsbruck taldean jokatu du datorren denboraldian



Egoitz Jaiok Austriako Wacker Innsbruck taldearen kamiseta jantzita.

> JOSEBA DERTEANO

Sorian zazpi urte eman ondoren, abentura berri bati ekin dio Egoitz Jaiok Austriari. Aukera horri ezin ziola alde egiten utzi adierazi du: “Ezetz esanez gero, hiru-lau urtean buruari bueltak ematen ibiliko nintzen: ‘onartu izan banu, onartu izan banu’...”.

Zelan sortu zitzaizun Austriari jokatzeko aukera?

Zazpi urtean egon naiz Soriako Numantzia taldean. Klubagaz batu eta bion artean erabaki genuen nik ez jarraitzea. Nire asmoa zen etxera hurreratzea, etxeko talde batean jokatzeko aukerarik sortzen bazen, aukera hori aztertzea. Ideia hori nuen, baina beti izan dut buruan nazioartera joatea jokatzera. Dena apur bat kasualitatez gertatu zen. Austriako talde horretan Iñaki Bea amurriok jokatu zuen orain urte bi; hemen inguruan (Austriari) bizi da, eta erdi ordezkari lanetan dabil. Orain aste bi deitu eta taldera batzea gustatuko ote zitzaidan galdetu

zidan. Bera oso gustura egon zela esan zidan, bai taldean, baita herrian ere. Esan zidan ez nuela diru askorik irabaziko, baina neuk ere banekien etxean zein kanpoan egonda, ez nuela diru askorik irabaziko. Egia esanda, ez nuen uste 32 urteagaz horrelako aukera bat irtengo zitzaidanik. Baina pentsatu nuen ez dudala galtzeko ezer, ze futboleant ez zait urte askorik geratzen. Hartara, aproba egitea erabaki nuen. Martitzen batean proposatu, bariku hartan baiezkoa eman eta hurrengo astelehenean hartu nuen hegazkina. Kontuan hartu behar da hemen hamabost egun barru hasten dela liga.

Beraz, esperientzia berri bat bizitzea da helburua?

Alderdi ekonomiko hutsagatik bakarrik mugitu izan banintz, ez nintzen Austriara etorriko. Kasualitatez sortu zait aukera, 32 urteagaz. Berandu da, badakit, normalean 28 bat urteagaz joatea komeni da. Baina aukera heldu den moduan heldu da, eta aprobetxatzea erabaki dut.

Zenbat urterako kontratua sinatu duzu?

Momentuz, urtebeterakoa. Urtebete abentura da printzipioz. Denboraldi amaieran balorazio bat egin eta orduan erabakiko dut zer komeni zaidan: hemen jarraitzea edo bueltatzea.

Beste talderen baten eskaintzarik izan duzu?

Zer edo zer komentatu zidaten etxe inguruko talde batean, baina hurrengo egunean hona etortzeko aukera sortu zitzaidan eta talde horri deitu eta Austriako proposamena onartuko nuela esan nien, bestela damutu egingo nintzela-eta. Ezetz esanez gero, hiru-lau urtean buruari bueltak ematen ibiliko nintzen: “onartu izan banu, onartu izan banu...”.

Zer moduz doa hor daroazun lehenengo astea?

Klubeko jendearekin zein taldekideekin nahiko ondo konpontzen naiz. Pozik nago. Okerrena hizkuntza da. Denek egiten dute berba alemanez. Baina ingelesez

DATUAK

Jaioteguna:

1980ko abuztuaren 13a

Jaioterria:

Abadiño

Ibilbidea:

- 1998/2002: Bilbao Athletic
- 2002/03: Ferrolgo Racing
- 2003/04: Algeciras
- 2004/05: Ferrolgo Racing
- 2005/06: Tarragona
- 2006/13: Numantzia
- 2013/14: Wacker Innsbruck

moldatzen gara. Aleman apur bat ikasten badut, hori gehiago.

Zer eskatzen diozu denboraldia berriari?

Azken batean lan bat da, eta dena ondo irtetea gustatuko litzaidake: Ahalik eta ondoen jokatzera eta taldeari laguntzea. Gainera, lau urteko alaba eta emaztea hemen ondo egotea ere gurako nuke. Futboleant neurea emateko aukerarik badut, eta emaztea eta alaba gustura badaude, horregaz pozik egongo naiz.

Zer dakizu zure talde berriari buruz?

Austriako lehen mailako taldea da. Hemengo liga hamar taldek osatzen dute, eta iaz azken jardunaldian lortu zuten mailari eustea. Suposatzen dut aurten mailari eustea izango dela helburua. Espainiako ligarekin alderatuta, bigarren maila bat-edo izango litzateke. Ez da erraza neurtzea, astebete bakarrik daroalako.

Numantzia taldean zazpi urte eman dituzu. Tartean igoera bat 2008/09 denboraldian.

Erdi ahaztuta ere badut. Bizitzan bertan gertatzen den lez, futboleant ere egunean eguneko bihurtzen da erdigune; baina, bai, gomuta onak ditut. Denboraldi hartan ez nuen askorik jokatu, baina urte berezia izan zen. Egia esanda, Sorian eman ditudan zazpi urteak oso onak izan dira. Lehen mailan ezin izan dugunok biderik egin, bigarren eta bigarren B mailako nomadak izaten gara sarritan. Nik zortea izan dut. Sorian zelanbaiteko egonkortasuna izan dut. Gainera, futboleant jokatzera gustatzen zait, baina ez naiz futbolzale amorratua. Futboletik kanporako lagunak ere egin ditugu, eta pozik egongo gara.

Tarragonagaz ere lehen mailara igo zinen.

Bai. Urtebete bakarrik egin nuen han, baina futbol ikuspegitik, oso ona izan zen partidurik gehienak jokatu nituelako.

“

Martitzen batean proposatu, bariku hartan baiezkoa eman eta astelehenean hartu nuen hegazkina”

“

Alderdi ekonomiko hutsagatik bakarrik mugitu banintz, ez nintzen Austriara etorriko”

> TRIATLOIA

Garaiko triatloian Euskadiko txapelduna erabakiko dute

Euskadiko triatloilari onenetakoak datoz; ibilbidean aldaketa batzuk egin dituzte



Garai triatloi taldeko Ander Azpitarte, iazko triatloian helmugara heltzen.

> JOSEBA DERTEANO

Garaiko Triatloi Taldeak ironman distantzia erdiko hirugarren triatloia antolatu du zapatarako. Aurreko aldietan legez, Saturraranen egingo dute igeri egiteko tartea (14:00etan hasiko dute), eta bizikletaz etorriko dira Garaira, korrika egin beharreko 21 kilometroak bertan egitera. Beraz, triatloia urteroko tokian hasi eta amaituko da, baina ibilbidean hainbat aldaketa egin dituzte.

Aldaketarik handiena korrikako tartean egin dute. Ibilbideak metro gehiago izango ditu herri barruan. Horretarako, herrietik kanporako ibilbide zatia kilometro bat inguru laburtu dute: Oizerako bidegurutzean hartuko dute buelta. Herri barruan triatloilariak hilerri parera arte joango dira eta han hartuko dute buelta. Bizikletatik korrikarako trantsizioa, berriz, aparkalekuan egingo dute eta ez pilotalekuan orain arte moduan.

Bizikletako tarteko aldaketa nagusia honako hau da: aurten ez dira Zaldibarreraino joango. Horren ordez, Iurretatik Mañarira joango dira. Igeri egin beharreko 2.000 metroak, ostera, kostatik hurrago egingo dituzte. Aurreko aldi bietan baino gertuago ipiniko dute baliza, eta joan-etorri bat beharrean, bi egingo dituzte parte-hartzaileek.

Aurten, Garain erabakiko da Euskadiko txapelduna (iaz Bizkaiko txapelketa egon zen joan), eta horregatik eta urterik urtera gero eta hitzordu finkatuagoa delako, aurreko aldietan baino parte-hartzaile gehiago egongo dira: 90 gutxi gorabehera.

Irabazteko faboritoak

Euskadiko txapela janzteko hainbat faborito daude. Mikel Otaegi da horietako bat; iaz distantzia luzeko 'Quebrantahuesos' triatloia irabazi zuen. Javier Anton (distantzia luzeko duatloien Euskadiko txapelduna) eta

Borja Jubera (erdi distantziako Espainiako txapelduna, 25-29 adin tartean) ere faborito nagusietakoak dira. Eurekin, Gorka Bizkarra mañariarra bereiztu daiteke: iaz bigarren sailkatu zen Garain, eta aurten zazpigarren amaitu du Donostiako nazioarteko triatloia.

IBILBIDEA

- **Igerian:** 2.000 metro

Saturraranen (itzuli bi)

- **Bizikletan:** 90 kilometro.

Mutriku (Saturraran), Ondarroa, Berriatua, Mendexa, Lekeitio, Amoroto, Gizaburuaga, Aulesti, Muniibar, Mendata, Ajangiz (180 graduko itzulia biribilgunean), Mendata, Muniketa, lurreta, Durango, Izurtza, Mañaria, Abadiño, Garai.

- **Korrika:** 21 kilometro Garain. Hiru itzuli ibilbideari.

> IGERIKETA

Alañak hiru domina irabazi ditu Bizkaiko txapelketan

Joan zen asteburuan, Bizkaiko igeriketa txapelketa jokatu zuten Santurtzin, eta Durangaldeko talde bitako igerilariak bost domina irabazi zituzten. Durangoko Tabira Igeriketa Taldeak lau domina lortu zituen, horietako hiru Aitor Alañaren eskutik. Haur kategorian (lehen urtekoa) Alañak zilarrezko domina bana jantzi zuen 200 metroko bizkar-igeriketan eta 100 metroko bular-igeriketan, eta, brontzea eskuratu zuen 100 metroko bizkar-igeriketan. Talde bereko Imanol Irizarrek brontzea eskuratu zuen tximeleta-eran haur kategoriako bigarren urtean.

Bosgarren domina Abadiñoako Astola Igeriketa taldeko Olaia Zuberok irabazi zuen, 100 metro librean eta haur kategorian.

> MENDIA

Pirinioetara irteera antolatu du Atxondoko Asuntzek

Uztailearen 20an eta 21ean Pirinioetara joateko irteera antolatu du Atxondoko Asuntzek mendi taldeak. Uztailearen 20ko zapatarako 14 kilometroko ibilbidea prestatu dute: Lintzan irten, eta Petrachema eta Lapaquizatik bueltan, berriro Lintzara bueltatuko dira. Hurrengo egunean zazpi kilometroko beste ibilbide bat egingo dute.

Apatako plazan irtengo dute, zapatu horretako goizeko 06:00etan. Buelta, berriz, domekan egingo dute, 19:00etan. Zapatu gaua Izabako aterpetxe batean igaroko dute.

Izen-ematea 25 euro da (furgoneta, aterpetxe gaua eta gosaria) eta kontakturako telefono bat utzi dute: 659 974 714.

ADITUAREN TXOKOA

Juan Carlos Perez

Areto futbola

A ze amorrua!

Euskal talde bi estatu mailako Bigarren B Mailako lehenengo postu bietan geratu dira. Elgoibarrek eta Zierbenak kantxan irabazi dute maila horretan jokatzeko eskubidea. Biak kokatu dira 32 talde onenen artean, munduko ligarik onenean. Bada, azkenean, talde bietako batek ere ezin izan ditu igotzeko esku-bide hori gauatzeko 200.000 euroak bildu. Ez erakundeek (politikoez zein kirol arlokoek), ez enpresa pribatu handiek ez dute batere interesik erakutsi Euskadin futbol 11aren itzalean ahultzen doan kirolarekiko.

Hala, erreferentziatzeko talde baten faltan, euskal areto futbolarak estatu mailakoaren atzeko puntan jarraituko du luzaroan.

Futboleant, Errealak eta Athleticek Euskadiko erakunde eta enpresen ia babes osoa erakartzen dute. Ondoren, gainerako futbol 11ko taldeak datoz, eta areto futbolarak hondarrak jasotzen ditu. Ez Euskal Federazioak, ez lurralde mailakoek ez dute areto futbolarikiko interesik; areago, traba egiten duela dirudi. Kirol hau biziberritzeko inizatiba guztiak klubengandik sortutakoak dira. Jokalariak eta entrenatzaileak dira aurrera egiteko denbora, grina eta dirua eskaintzen dituztenak. Azkenean, ikusiko duzue, politikoez eta buruzagiak emaitzak eurenak balira lez saltzen saiatuko dira.

Zer kostatuko litzaieke Athletice eta Errealari 300.000 euro bideratzea areto futboleko atal bat sortzeko euren egitura barruan? Oso gutxigaz, Euskadik areto futboleant erreferente bat izatea lortuko luke.

> TXIRRINDULARITZA

Lehenengoz ibiliko da Bizkaiko Itzulia Durangaldean zehar

Gaur Zaldibarren eta bihar Elorrion hasi eta amaituko dira etapa bi



Beste Alde-Orue eskola taldeak Bizkaiko onenaren maillota eta euskaldun onenarena lehiatzea ditu helburu.

> JOSEBA DERTEANO

Gazte mailako Bizkaiko Itzulien 19. aldiak lehenengo bider zapalduko ditu Durangaldeko lurak. Lau etapatik bik Zaldibarren eta Elorrion izango dute hasiera eta amaiera.

Balmasedako Txirrindulari Elkarteak antolatzen duen itzulia eskualdeko hainbat udalen laguntza jaso du, eta horregatik ekarri dituzte etapa bi hona. Atzo Balmasedan izan zen lehen etaparen ostean, gaur, 16:30ean, Zaldibarren ekingo diote bigarrenari. Berriz, Elorrion eta Abadiño igaro ondoren, Areitio gai-

na birritan eta Trabakua behin gainditu beharko dituzte txirrindulariek, 18:30ean Zaldibarren helmugaratu aurretik.

Bihar, 11:00etan, Elorrioko Santa Ana kalean hasiko da itzuliko azken aurreko etapa. Erletxera (Galdakao) joan-etorria egin ondoren, Intxorta igoko dute Elorrion bueltatu aurretik.

Parte-hartzaileei dagokienez, "oso maila handia" dagoe-larantz deritza Agus Ruiz Bizkaiko Txirrindularitza Federazioko presidentea. Iazko aldia irabazi zuen Iban Garcia (Gijón-Las Mestas) asturiarra da garaipena

berritzeko hautagai nagusia. Bera da Espainiako txapelduna, eta pasa den domekan Lena Destino klasika irabazi zuen. Iosu Angoitia (Fundación Contador) da Garciari aurre egin diezaiokeneetako bat. Maila handian dabil markinarra.

Beste-Alde Orue eskolak honako seikote hau eroango du: Adrian Sainz, Aritz Hernandez, Markel Arbulu, Jon Munitxa, Gartzel Elejabarrieta eta Markel de la Fuente. Bizkaiko onenaren maillota irabaztea eta aurreneko euskaldun lez sailkatzea izango dute helburu.

> ATLETISMOA

Gaztetxoak nagusien mailan aritu dira Bizkaiko txapelketan

David Izkarak 15 urte gaz salto hirukoitza irabazi du; Joseba Ogiza bigarren sailkatu da, 14 urte gaz

Bizkaiko Atletismo Txapelketan hainbat domina irabazi dituzte Bidezabal eta Durango Master Kirol taldeko atletak. Azpimarratzekoa da salto hirukoitzean David Izkarak (Bidezabal) eta Joseba Ogiza elorriarrak (Du-

rango Master Kirol) erakutsi zuten maila. Maila absolutuko txapelketa zen arren, modalitate batzuetan, salto hirukoitzean kasu, gazteagoak ere parte hartu dezakete. Eta horixe izan zen 15 urteko Izkararen eta 14 urteko

Ogizaren kasua. Izkarak urrea irabazi zuen (12.10) eta Ogizak zilarra (12.09). Zentimetro bakar batek banatu zituen atleta gazte biak. Gainera, Ogizarentzako bere ibilbideko markarik onena izan zen.

Bidezabalgo Ander Santos (400 metroan), Belit Solar (400 metroan) Andrea de la Torre (800 metroan), Iraia Garcia (3.000 metro oztopoetan) eta Arantza Morenok (mailu eta xabalina jaurtiketan) ere urrea jantzi zuten.

> MOTORRA

Aitor Martinez babesle bila dabil denboraldia amaitu ahal izateko

Eroriko batean motorra kaltetu eta aurrekontuko zati handia eraman dio hura konpontzeak

> J.D.

Joan zen asteburuan Espainiako Abiadura Txapelketako lasterketa bat lehiatu zuen Aitor Martinez abadiñarrak Albaceten. Irteerako ordena erabakitzeko bigarren entrenamendu saioetan, 'pole' rako borrokan zebilela, pneumatikoa aldatu eta bihurtune azkar batean irten egin zitzaion. Erorikoaren ondorioz, egun osoa motorra konpontzen eman zuten.

Lasterketako ondorio oke-rra da motorra konpontzeko, berez estua zen aurrekontuko zati handi bat gastatu zutela. Hurrengo lasterketa bietan

parte hartzeko adinako aurrekontua badu. Txapelketako azkenengo biak ditu kolokan: "Ezbehar honengatik atseka-betuta nago. Fisikoki ondo nago, baina eroriko honek kolpe gogorra eman dio gure aurrekontu estuari. Motorra erabat konpontzeak geratzen zaigun aurrekontu ia osoa gastatzea eragingo du, eta horrela oso zaila izango da denboraldia amaitzea". Gaur egun, hirugarren dago sailkapen nagusian (Superstock 600 kategorian), baina "aurrera jarraitzeko babesle pribatu bat eta laguntza instituzionala behar ditut".



Aitor Martinez motor gainean lehian.

> FUTBOLA

Uztailaren 19an hautatuko dute presidentea Abadiñon

Zuzendaritza aukeratzeko prozedura hasi dute

> J.D.

Uztailaren 19an Abadiño Kirol Kluba gidatzeko presidentea eta zuzendaritza batzordea aukeratzeko hauteskundeak egingo dituzte. Guztira, 132 bazkidek dute bozkatzeko eskubidea.

Asteon amaitu da gura duenak bere hautagaitza aurkezteko epea. Gaurtik datorren

